

Jose Mari Erkizia Osa

*Getaria,
Gipuzkoa
(1925-2011)*

Aurkibidea

Biografia



Arroa Goikoa auzoko Zugastitxiki baserrian jaioa, Getariako Bizkarraga baserrira ezkondu zen (San Prudentzio auzoa), eta han bizi izan zen harrezkero. Bizi guztian baserriko lanetan aritutakoa, gai hauen gainean hitz egin zuen: garia, txakolina, sagardoa... San Prudentzio auzoko kontuak ondo ezagutzen zituen, baita ehiza kontuak ere.

Zintak

GET-009

- **Proiektua:** Getaria: euskara eta itsasoa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2006-10-20
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Baserriko bizimodu gogorra

- **Erref:** GET-009/002
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:03:00. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Arroa goikoko baserri batean bizi izan zen mutikotan. Baserrian ez omen dago jairik, abereei kasu egin behar zaie eta. Baserriko bizimodua gaur egun asko aldatu da.

2. Tratua saltzera Eibarrera eta itsasontzietara

- **Erref:** GET-009/003
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:09:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Gauean berandu erretiratu eta goizean goiz jaiki behar izaten ziren tratuarekin saltzera joateko. Hasieran astoa eta karroarekin ibiltzen ziren eta gero zaldia eta karroarekin. Eibarrera joaten ziren saltzera trenez salmenta ona izaten zelako. Barkuetara ere jenero asko eramaten zuten moilara. Dendakoarekin tratua egin eta traktorea kargatuta eramaten zuten moilara han zeuden 10 itsasontziak hornitzeko. Zumaatik bueltan trenez Eibarrera joaten ziren saltzera eta asteburuetan kamioian ere joaten ziren. Zarautzen baino gehiago saltzen zen Eibarren.

Transkripzioa

- Lehen... Jesus! Bolada baten itten giñuzen... Korrika asko in ber, ibiliya naiz, ta bai andria're, biyok.

- Bai, e?

- Hasi giñan, gero zea, tratuakiñ ta demonio guztiyakiñ, benga, benga...

Gabian erretira orduko beandu, ta goizian bost eta erdik, seiretako...

- Goiz.

- ...arriba. Ta hemendik Zumaira, astua ta karro zahar bat bagendun, ta haekiñ. Ta geo zaldiya ta karrua, eta haekiñ. Haundiya iruitzen zitzaigun. Ta holaxe.

- Eta Zumaira tratura?

- Ez, ez, ez. Eibarra.

- Eibarra.

- Eibar aldea [...] treneako, Zumaiaiko estazyua. Eibarra. Udazkenian behintzat, tratua asko.

- Eta zergaitik Eibarra? Gehio saltzen zan Eibarren?

- Bai! Oain kanpotik etortzen da tratua danian, plazatan, kanpoko fruta o zeakiñ. Guk sagarra ta tomatia ta hortakuak eukitzen giñun. Ta patata, patata [...] ez, sagarra ta tomatia udazkenian. Patata itten gendun... berrogei zako ta eraitten giñuzten...

- Bai, e?

- ... [hazittan]. Ba... beatzi barku geneuzkan Getaian, ta haienzako patata iñ in behar izaten gendun. Haiek atuneta ertetzeko, igual bi milla kilo.

- Bi milla kilo, e?

- Emanaldi baten, lehendabiziko, hasierakuan. Tratoria kargatu, ta molla. Geo, tipula're asko itten gendun.

- Eta tipula're bai, e...

- Tipula?

- ...barkotako?

- Bai, bai, bai. Asko. Tipula [...] jartzen gendun. Ta geo bestia porrua. Porrua're asko. Ta segi.

- Eta zuzenian molla jun, ta... arrantzaliei...

- Bai, bai. Denda, denda zeatuta eukitzen zuan, dendak eukitzen zittuan hoiek, danak, barko hoiek. Beti hamar barku o eukitzen zituen, ta hoiek. Haiek etorri orduko itsasutik igual egualdi txarra o [...]. "Baatoz ta holako... honenbeste kilo patata, o horrenbeste tipula, o horrenbeste porru" o eskatu [...], osatu in behar.

- Tratoria hartu, ta...

- Tratoria hartu o [...]. Geo, azkenian zeak, andriak karneta atea zuan ta [...], zeakiñ, kotxiakiñ, furgonetakiñ.

- Ordun zuen, zuen patatak eta atuneta eramaten zian?

- Asko!

- Marmitakua iteko!

- Bai, bai, bai. Marmitakua iteko o bestela jateko, nik ez dakit zertako eramaten zittuen.

- Bai, bai.

- Baiña asko, asko patata. Geo dendak laga ziyon, ta dendak laga ziyonian akabo, gu're mutu geatu giñan.

- Eta, ordun, arrantzaliak eta horrela ibiltzen zituen, ba, porruak eta tipulak eta jasotzeko baserritarrekin tratua zuzenian?

- Ez, ez, ez. Guk denda, guk iñ itten gendun tratua.

- Dendakin zuzenian.

- Dendakiñ eitten gendun guk tratua zuzenian.

- Eta gero dendakuak, e...

- Dendakuak barkutakuak. Guk dendatik kobratzen gendun ta dendaiyak esaten ziun. "Zuek ekarri honenbeste kilo o honenbeste gauza", ta "Bale!". Ta eamaten gendun, ta guk molla bai zuzenian barkura eraman. Baiña...

- Baiña...

- ... dendakuak.

- Diru kontuak dendakuakin.

- Dendakuakiñ. Dendakuakiñ arreglatzen giñan.

- Eta esan dezu tratua askotan, garai batian behintzat, Eibarren iten

zenutela.

- Bai. Eibarrea're bai, Eibar'e... Larunbatetan ta juten giñan zea, kamiona hartuta. Bestela trena, Zumaiako estaziyoa trena jun ta han fakturatu ta, zaldiya o astua o zana laga estaziyuan ta bueltan etortzen zanian trastiak hartu ta itxea.

- Eta, zergaitik Eibarrea? Zarautzen baiño gehio saltzen zan Eibarren?

- Bai, bai, bai. Askoz gehio! Hemendik jende asko juten zan ordun Eibarra. Eibarra.

- Bai. Askoz gehio! Eta orduan, goizian goiz...

- Goizian goiz jaiki behar, ta sekula ez nun jarri despertadoreikan!

- Ez, e?

- Ez.

- Oillarrakin jaikitzen ziñan, o?

- Oillarrakiñ ez, ez. Bestela! Jartzen zitzaiten buruan, ba, "holako ordutan jaiki behar naiz". Ta ordu hortako beti tak! Beti tak, zuzen esnatu.

3. Artazuriketa-lanak

- **Erref:** GET-009/006
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:11:00. **Bukatu:** 00:13:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Garia eta artoa asko egiten zen lehenago. Artoa zuritzeko gaineko zorroa kendu eta garbitu egiten zen. Garbitutakoen otarra bete eta lepaka ganbarara igo. Arta-zuritzea normalean gauean egiten zen eta arrosarioa ere errezatzen zuten. Artoari kendutako zorroak ganaduari ematen zitzaizkion.</p>

Transkripzioa

- Ordun, garai hartan, gariya're asko itten zan. Ta artua ta babarruna're bai.

- Gehien zer iten zan hemen?

- E?

- Gehien? Artua, o gariya, o?

- Artua gehio ingo zan, baiña... Ehun anea esaten diyou guk, ez dakit kiluak zenbat... Aneak izaten dittuk berrogeita bost kilo bakoitza.

- Berrogeita bost. Eta ehun, e?

- Bai. Ehundik gora, bai inguru hortan beti ibiltzen giñan.

- Hori gariya.

- Gariya. Ta artua [ez dakit]. Ta geo basarri honek duan nekia, dana lepaka, goiko ganbara. Eskailletan bigarren, biarren pisoa jun behar. Hemen [...], geo hurrungua pisu bat ta hurrungukua, gora. Dana. Lepaka.

- Gariya're bai, e?

- Gariya're bai ta artua're bai. Artua zuittu ta otarra haundiya bete ta hartu bizkarrian ta, tapa-tapa-tapa. Illuntzian etorri ta, leher inda ta, "Dios! Jasoko [...], jaso beharko dixkiu hauek'e!". Segi! [...] sasoia banuan, dedio! Laneako sasoi hua! Baiña alperrik da, ez dao uain sasoi hua.

- Eta esan dezu, artoa zuritu ta... Nola izaten zan? Arto-zuriketa ta izaten zan, ez?

- Geuk!

- Ze izaten zan hori?

- Hori... zeak eoten da hori, torruan barruan eoten da artuan burua...
- Bai.
- ... aliakiñ. Ta haura, gaiñeko zorrua kendu eta dana garbitu ta zestura bota. Ta zestua betetzen zanian, bizkarrian hartu ta gora.
- Eta hori egunero iten zan?
- Artua zeon arte bai! Egunero bai, gehienez, milagrua gabe uztia. Ta familiya juntatu ta... Familiya azkenian, zeon geundela, danak juntatzen zanian, errosaiua zeatu.
- Hori gabian izaten zan?
- Gabian bai, gabian.
- Eta...
- Egualdi txarra jotzen bazun, egunez'e bai, baiña... Egunez gutxi.
- Eta artua ordun ganbara.
- Dana ganbara. Geure ganbara zaharrak badu indarra, bai,...
- Bai.
- ... horrenbeste tonelaai eusteko.
- Eta zorrua ta? Zuritutako hori?
- Geo behiai haura eman.
- Behiai.
- Behiai ematen zitzakoen. Hola ibiltzen giñan.

4. Txakolinaren gaitza; saihesteko modua

- **Erref:** GET-009/007
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:13:18. **Bukatu:** 00:15:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Txakolina. Beti izan dute mahasti zati bat eta beti ezagutu izan du txakolina. Lehen sulfatoa potea bizkarrean hartuta botatzen zitzairen gainetik. Sufrea, berriz, azpitik ematen zitzaion hauspoarekin. Hau arriskutsua zen begiak erretzeko arriskua zegoen eta. Txakolina gaitzak ez hartzeko botatzen zitzaion hori. Txakolinaren gaitz konkretu bat deskribatzen du.

5. Mahastiaren lana garai bakoitzean

- **Erref:** GET-009/008
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:15:30. **Bukatu:** 00:18:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Txakolinaren lanak garai bakoitzean. Neguan podatu eta hesolak txukuntzen zaizkio. Udaberrian botika ematen zitzaion eta udaran ere berdin. Sufrea 3-4 alditan eman behar izaten zitzaion. Neguan edo udaberri aldera aitzurtu eta simaurtu egin behar izaten lurra. Lurra ontzeko antxoa edo sardinak ere botatzen ziren.

6. Mahatsa biltzeko garaia

- **Erref:** GET-009/009
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:18:50. **Bukatu:** 00:20:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Pilarika inguruan batzen zen mahatsa. "Podaizea"-rekin batzen zen mahatsa zestoetara; gaur egun kaxak erabiltzen dira.

7. Mahatsa ondo zaintzeko jarraibideak

- **Erref:** GET-009/010
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:20:30. **Bukatu:** 00:21:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Mahatsa zaintzeko ondo begiratu behar zaio. Hosto puntak begiratzen dira gaitza duen ikusteko. Gaur egun traktorean litro asko jarrita botatzen da sulfatoa. Sulfatoa lehor dagoenean bota behar da, bestela ez du ondo hartzen.

8. Txakolina egiteko prozesua

- **Erref:** GET-009/011
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:21:45. **Bukatu:** 00:23:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Txakolina egiteko prozesua. Lehenbizi hanka azpian txikitzen da mahatsa eta gero prentsara botatzen da. Eskuarekin bultza eta tira estutzen zen dolarea. Gero baldearekin barrika bete.</p>

Transkripzioa

- Zu, ta gero, batu ta gero txakoliya itia ta, nola, nola iten zan txakoliña?
- Txakoliña? Beno, lehendabizikotikan zeatu itten gendun, hankakin xi-xiya, xi-xiya [xehe-xehea, xehe, xehea] in...
- Nola?
- Hankakin, xi-xiya esaten diyou guk.
- Xi-xiya?
- Xi-xi... txikittu hankakin. Hankazpiyan dana, hankahutsik jarrita. Dana txikittu, ta geo prentsa bota.
- Eta hori nun eiten zan?
- Hori hormigoizko zea baten, gurian behintzat, ta beste tokittan'e bai. Geo pats-oholak esaten zitzaten. Uain sagardua itten dan bezela. Pats-ohola hoiek ipiñi gaiñian eta geo [tronbongo] haundiya jarri eta gero eskuakin: tiki-taka, tiki-taka, tiki-taka, estutu.

- Estutu. Tolaria estutu?
- Tolaria estutu. Ta beak ateatzen dizu [prentsa] bat. Estutzen ai zean bezela, beak ateatzen zittun.
- Eta zuzenian barrikara?
- Guk bai ta ez. Guk beste barrika bat jartzen gendun, ta geo baldiakiñ bete barrika. Oaiñ, oaiñ eindako zea dakau guk hemen daon garaje hau're, uaiñ hor eoten dia. Garajiai bodega esaten diyau, baiño, hor eoten dia txakoliñak eta sagarduak eta danak.

9. Kanean saltzen zen txakolina txotxean

- **Erref:** GET-009/012
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:23:06. **Bukatu:** 00:25:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Kale-baserrietakoek kanean edo ikuiluan barrika jarri eta txotxean saltzen zuten txakolina. Basoa 3 txakur haundi kobratzen zela uste du.

10. "Txordoketan egitea"

- **Erref:** GET-009/013
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:25:10. **Bukatu:** 00:26:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

"Txordoka" hitzaren azalpena. Mahatsa bildu eta gero nahi duena hondarrak batzera joan liteke; hori da "txordoketan ibiltzea". Mahatsa bildu aurretik ere egin daiteke hori, baina mahastiaren jabeak ez du uzten, normala denez.

Transkripzioa

- Eta entzuna daukat, baiña ez dakit zer dan, "txordoka" o "txordokia"...
"txordokan itea", o...
- "Txordoka"?
- Zer da hau?
- "Txordoka". Zea izango da, mahatsa bildu, pasatzen dan jende, e, zea, aurrea, ta geo atzetikan han geatzen dienak, morduak, haiek, zuetzako izaten dia, juten ta biltzen ditunantzako, "txordoka".
- Pasatzen dan edozeiñentzako.
- Bai, bai, eozein. Zeuk oaiñ nahi bazu mahastiyeta jun ta billatzen dezuna, zeuretzako.
- Neuretzako.
- Bai.
- Eta hori da "txordokan"?
- "Txordoka" hori da. Lehen, lehenetik ez dek laatzen, e! Iñok ikusi ezkeo, errieta ematen due, mahatsa hartzen mahastitikan, bildu baiño lehenuo. Geo biltzen danian, ordun bai.

- Ordun bai. Ordun libre.
- Ordun "txordokatan" libre. Hoixe da "txordoka".

11. Haizeak gogor jotzen du itsasotik Getarian

- **Erref:** GET-009/015
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:27:36. **Bukatu:** 00:29:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Jendeak Getaria paraje ederra dela uste du; baina, eguraldi txarra denean, ez da paraje ona, haizeak itsasotik gogor jotzen du eta. Bere iloba baten senarrarekin gertatutako anekdota.

12. Lehengo neguak gogorrakoak; izozteak

- **Erref:** GET-009/016
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:29:25. **Bukatu:** 00:31:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak

Laburpena:

Lehengo neguak gogorrakoak izaten ziren. Elur-garaian gertatutakoa: depositutik etxera bidean ura izoztu. Lehen izugarrizko kandelak egiten ziren. Lapa biltzera joandakoan gertatutako anekdota.

Transkripzioa

- Eta gogoratzen dezu, holan, tenporal gogorren bat? Ba, ez dakit ze urtetan tenporal gogorra izandu zala o, haizia o, elurra...
- Elurrakiñ'e bai, elurrakiñ'e gogorrak izan dia hemen urtiak. Ur danak geatu ta etxian atzian hortxe gaude [...]. Handikan hartu baldian ura ta hemen ataian honea pasatu orduko, jelauta. Lurrea eroitzen zan ur [...] jelatu itten zuan. Ba, holakuak ezautu dittugu hemen.
- Lehengo neguak zer zian, gogorrakuak? Oainguak baiño gogorrao?
- Bai, bai, Urte habetan ez da neguik izan. Hotzak eta zeak izan dia, baiño ez da, ez dao uaiñ konparaziyoik [...].
- Lehen izaten zian izotz kandelak, eta?
- Buuuf! Hor, hemen azpiyan kandelak ikearagarriyak eta batian pentsau ta jun naiz harraldea, lapata. Ehizian'e gustatzen zitzaiten asko botakiñ ibiltzia, baiña harraldea jun ezkeo, lapa baare seuru. Eta hala jun naiz harraldea, ta ai naiz lapak biltzen ta, "uuuuuuuu!", [...] goittikan. Haize soiñua goitik behera, ta, "bruuuuuu!", behian soiñua, ta. Ze etorriko? Ta jela pilla haundiya etorri zan txintxilika zeona. Soltau ta behera. Haura

sustua eman zian! Dedio! Bildurra? Bai, hau parajia... Ez zeazte hor hauzkaldian izan? Ikusiko bazendun behera... Hortxe kamiyua, beheko kamiyua, karretera jenerala azpiyan ertenda...

- Bai, jeneralea.

- Bai. Hor tunela nola in da uaiñ?

- Bai.

- Peligrua zeola haundiya hemendikan, ta tunela in zan hor. Goittik harriyak jun ta eroitzeko zeola ta...

- Bai, bai, bai.

- ... zeatzeko, miña hartzeko arriskua zeola ta tunela in zuen.

13. Olagarroak harrapatzeko teknika

- **Erref:** GET-009/017
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:31:30. **Bukatu:** 00:34:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Olagarroa
- Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza

Laburpena:

Harraldera joaten zen lapatara edo olagarrotara. Olagarroak "zigorrarekin" harrapatzen zituzten, puntan zerbait jarrita (urdai-azala edo). Asko ibili behar da harririk harri olagarroak harrapatzeko.

14. Inguruko txori-klaseak

- **Erref:** GET-009/019
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:35:26. **Bukatu:** 00:37:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Ehizarako zaletasuna izan du. "Gastrorizuak" (tordo campanario) egoten dira asko inguruetan. Pikuak eta udareak jaten dituzte amorratuta. Patxizarrak (gorrión) ere gaiztoak omen dira, etxean sartu eta aleak jaten dituzte eta.

15. Soldadutzako ibilerak Nafarroan; anekdotak

- **Erref:** GET-009/021
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:38:16. **Bukatu:** 00:42:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Soldadutzan hiru urte egin zituen. Boluntario joan zen Donostiara. Nora

zihoazen jakin gabe, gauzak prestatu eta irten ziren. Lehenbizi Irunera joan ziren. Han zalditerian jarri zuten eta zaldi eskasa tokatu zitzaion. Handik Lesakara joan ziren. Zaldiak ondo gobernatzen ziren, baina eurak gose ziren. Taberna batean sardina zaharrak aurkitu zituzten; haiek jan eta ardoa edanda, mozkortu egin ziren. Gau horretan, mandaskan lo egin zuen. Diana goizean goiz jotzen zieten. Kafea gaztaina-saldaren kolorekoa izaten zen.</p>

16. Soldadutzako ibilerak Nafarroan; anekdotak

- **Erref:** GET-009/022
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:42:16. **Bukatu:** 00:46:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Makisen kontra ibili zen soldadutzan. Beraiek ez zuten tirorik bota, baina euren aurrekoek bai. Lesakatik Elizondora joan ziren. Zerbait jan eta arboladi batera erretiratu ziren, manta zahar batzuk hartuta. Ekaitza etorri eta lastoz betetako mandoen gurdietara joan ziren lotara. Hurrengo egunean, Arizkunera heltzen ari zirela, elurra egin zuen. Botak min egiten ziotela-eta, alpargatak zituen Joxe Marik. Urdaxera joan ziren handik zehar.</p>

17. Soldadutzako ibilerak Nafarroan; anekdotak

- **Erref:** GET-009/023
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:46:16. **Bukatu:** 00:50:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Bera baserritarra izanik, berarentzako moduko lanak ematen zizkioten. Amaiurko alkatearen etxera bidali zuten lanera, eta 40 egun egin zituen han. Batailoia zetorrela-eta, Urdaxen aurkezteko agindua jaso zuen. Hara joan, eta hura ez zela berarentzako tokia; horregatik, Lekarozera joateko esan zioten. Hiru egun ezkutaturik egin zituen han, baina gero 22 hilabete pasa zituen bertan. Desmadre handia zegoen Lekarozen, nahi zuenak nahi zuena egiten zuen.</p>

18. Arrantzale eta baserritarren euskara desberdina

- **Erref:** GET-009/024
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:50:16. **Bukatu:** 00:51:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Arrantzaleek eta baserritarrek hizkera zertxobait diferentea dutela uste du. Zumaiarrek ere pixka bat desberdin egiten omen dute, baina Arroan eta Askizu inguruan Getarian moduan egiten da.

19. Untxiek baratzeko jeneroa jaten zuten

- **Erref:** GET-009/025
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:51:10. **Bukatu:** 00:52:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Ehizarako zaletasuna izan du. Hegaberak asko izaten ziren garai batean. Erbiak ere ibiltzen ziren inguruetan eta erbitan edo untxitan ere ibilitakoa da. Untxiek baratzeko gaiak jaten zituzten.

20. Basoko piztiak; katamuxarrak

- **Erref:** GET-009/026
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:52:10. **Bukatu:** 00:56:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Fauna » Natura » Basoko animaliak » Ugaztunak

Laburpena:

<p>Beste pitzia batzuk: erbinudeak; azeriak; katamuxarrak; kattagorriak. Katamuxarren deskribapena. Kattagorri gutxi dago inguruetan. Bere koinatuari katamuxarrarekin gertatutako anekdota. Jan egiten zituen katamuxarrak koinatuak. Basakatuen inguruko kontuak. Soldadutzan Maian egon zenean azeriak hil izan zituen alkatearen eskopeta zaharrarekin.</p>

21. Txori-izenak

- **Erref:** GET-009/028
- **Iraupena:** 0:05:40. **Hasi:** 00:56:50. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

"Basoilo" edo "mendi-oiloak" gutxi ikusi izan ditu. Behin hil omen zuen bat. Zapelaitzak; beleak, kabirai txikiak... Itsasoko hegaztiak: kurriloak, kulixkak... Inguruetan gehien ikusten diren txori-motak.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com